

| EUSKAL KULTURARENTZAKO GALERA |

Juan San Martín hil da 82 urterekin, bizi guztian euskararen defentsan jardundakoa

► 1964. urteaz geroztik zen euskaltzain oso, eta lehenengo Ararteko izan zen baita ere

► Gaur izango da hileta-elizkizuna, Hondarribiko Andre Mariaren parroki elizan


FELIX IBARGUTXI

DONOSTIA. DV. Juan San Martín euskaltzain oso, idazle, itzultzaile eta historialaria atzo goizaldean hil zen, 82 urte zituela. Orain dela bi urte jakin zen gaixo zegoela eta buruko ahalmena urritzen ari zitzaiola; harrezkero, pixkanaka-pixkanaka gutxituz joan ziren agerraldiak eta aurten ez zen behin ere agertu Euskaltzaindiaren bileretara. Hiletak bihar egingo dituzte, 19:00etan, Hondarribiko Andre Mariaren parrokiaren.

Eibarren jaioa zen, 1922an, baina urte asko zeraman Hondarribian bizi izaten. 2003ko azaroan, Koldo Mitxelena Kulturuneak Juan San Martínen omenezko hitzaldi-sorta antolatu zuen bere hamargarren urtea ospatzeko. Omenduak ez zuen hitzaldi luze-rik egin eta seme Oier jardun zen familiaren bozeramaile moduan. Gero, iazko irailean, Eusko Ikaskuntza-Euskadi Kutzaren Humanitateen Saria eman zitzaion. Euskaltzaindiarekin azken ekitaldia iaz izan zuen: Hondarribiko onomastika-liburua publikatu zion orduan akademiak. Eta orain egun asko ez dela, maiatzaren 17an, Eibarko Udalak erabaki zuen Herriko Seme Kuttuna izendatzea, herritarren sinadura-bilketatik hartuz.

Euskara izan zuen San Martínek kezka handienetako bat. Era askotako lanak egin zituen bere gurasoen hizkuntzaren amodioagatik. *Euskararen ostarteak* liburuan (1998) hau idatzi zuen: «Galdera nondik eta zertarako datorenrik gabe, nornahik bat-batean galdetuko balit: 'Euskaldun zertarako?', ez nuke jakingo zer erantzun. Neuk ba al dakit zertarako? Baina, naiz. Eta hau da errealitate bakarra».

San Martínek honela azaldu zion *Jakin* aldizkariari bere gazaroko Eibarren bizitako egoera: «Giroa oso txarra zen. Udaletxean edo beste edozein zentrotan isilik geratu behar, baina trenean, autobusean edo horrelako lekuetan ikasia nuen, nire irakurketetatik, zer erantzun. Autobusean eta nornahik esaten zizun: 'Hable en cristiano!'. Nornahik! Sarri erdibaserritar erdaraz ondo ez zekienak, karlista zelako. Baina sarriago, kanpoko jendeak, poliziek eta. Nik erantzuten nien:



Juan San Martín, en el salón de su domicilio de Hondarribia, durante una entrevista en 2003. [LUSA]

'Lo siento mucho, pero yo no sé arameo'. Berak: 'Quiero decir que estamos en España y hable usted en español!'. Eta nik: 'Pues yo estoy hablando la lengua más antigua de España'. Jendea adi-adi egoten zen. Eta gero: 'Yo no soy separatista, pero veo que usted es un separador!'. Horrela erantzuten nien. Jendeak horrekin kontzientzia hartzen zuen eta ni pozik. Hori, zenbat aldiz eta zenbat tokitan! 40ko hamarkadaren erdia pasatu ondoren hasi nintzen horrelako erantzunak ematen. Esaten zidaten lagunek, egunen batean disgustoa izango genuela...».

Gerraren ondorioak

Juan San Martín 1922ko ekainaren 23an jaio zen, San Joan bezperan, Eibarko Elgeta kalean. Han egin zituen bizitzako lehenengo 14 urteak, 1936an gerra piztu zen

Se suspende el homenaje en Eibar

El Ayuntamiento de Eibar ha suspendido el pleno de nombramiento de Juan San Martín como hijo predilecto de la localidad, ante el fallecimiento del que fuera el primer Ararteko, según informó el Consistorio eibarrés. El Ayuntamiento ha decidido suspender el pleno programado para el próximo viernes y establecer con la familia una nueva fecha para rendir homenaje «a la figura de tan ilustre eibarrés».

El alcalde de Eibar, Iñaki Arriola, señaló que «Juan San Martín ha sido una persona sencilla y de trato familiar que hizo gala de un notable eibartarrismo». Aseguró que «en estos momentos de dolor, la ciudad quiere estar cerca de los familiares y amigos» de Juan San Martín, cuyo funeral se celebrará hoy a las siete de la tarde, en la parroquia Andra Mari de Hondarribia.

arte. Aita, jatorri eta joera liberal ezkertiarrekoa, Valentziara joan zen Errepublikaren alde armagintzan aritzera; ama eta lau anai-arrebak Arratian, Bilbon, Santanderren eta Gijonen ihesi ibili ondoren, Bordelerantz itsasoz zihoazela ontzia frankistek harpatu eta El Ferrolera eraman zituzten, eta handik atzera Eibarrrera.

Etxea suntsituta aurkitu zuten baina, eta osaba baten etxean, esku hutsik, ekin zioten bizimodu berriari. Kolpetik amaitu zitzaion haurtzaroa Juan San Martíni.

Tornero hasi zen lanean, egunez, eta gauez joaten zen eskolara. Soldadutzan, euskaldunen kontrako irainak eta mespretxuak bizi izanaren erreakzio gisa, euskaltzaletasuna piztu zitzaion. Euskaraz bere kasa alfabetatzeari ekin zion. Legoaldik itzulitako

Grimm a anaien ipuinak eta Urruzunoren *Ipuiak* izan zituen alfabetatze horretan lehenengo tresnak.

Irakurle borrokatua zen ordu-rako, eta mendizale indartsu askoa. Lehenengo idazlanak, hain zuzen, mendiari buruz idatzi zituen: Eibarko Kirol Elkartearen buletinean eta *Pirenaica* aldizkarian, gaztelerez hasieran, euskaraz ere bai gerora.

Imanol Berriatua-ren *Anaitasuna* eta Jokin Zaitegiren Euzko Gogoa izan ziren kultur gaiei buruzko bere lehen artikuluen plaza 1950eko hamarkadaren hasieran, eta Euskal Herrian izan diren aldizkari gehienetan argitaratu du Juan San Martínek geroztik, gaur arte. *Egan* aldizkari zuzendari izan zen 1983tik 1989ra. DV-n ere argitaratu zituen artikulua asko.

Artikuluak ezezik, poemak ere

REACCIONES

JAVIER RETEGUI

Presidente Eusko Ikaskuntza

► «Internacionalista de pro, su precepto era el respeto a la libertad de todos»

ODÓN ELORZA

Alcalde de San Sebastián

► «Con esta muerte, la sociedad vasca ha perdido a un humanista»

XABIER MENDIGUREN

Director general Kontseilua

► «Escritor y poeta y un referente en el mundo de la cultura vasca»

GOBIERNO VASCO

► «Sentía un amor profundo y noble por este país, por su lengua y su cultura»

LITERATURA | P. 68 |

Edward Rosset ilustra en 'Los viracochas' las virtudes y las miserias de Pizarro en Perú



TELEVISIÓN | P. 74 |

Tele 5 estrena el primer documental de investigación sobre el caso del Yakovlev-42

Tornero hasi zen lanean, egunez, eta gauzez joaten zen eskolara

Azken urteetan aurkikuntza arkeologikoak egin zituen

plazaratu zituen, batik bat, *Euzko Gogoa*-n eta Santi Onaindiak zuzentzen zuen *Olerti* aldizkarian. *Otsalar* zuen poesia lanetarako goitzen, eta olerki guztien bilduma publikatu zituen *Euskal Herriko Unibertsitateak Gaur Egungo Euskal Poesia* bilduman. *Giro gori-Tiempo ardiente* jarri zitzaion izenburu.

Aspaldi, 1959an, plazaratu zuen bere lehenengo liburua, Juan Antonio Mogel, *Peru Abarka*-ren autorearen bizitza eta obrari buruzko liburuxka. Haren ondotik beste hainbat etorri ziren, arlo ugari ukitzen zutenak: umorea, literatura, artea, etnologia eta hizkuntza, besteak beste. Oihartzun handia eta harrera beroa izan zuten 1960eko hamarkadako bi liburuk, umorezkoak, eibartar eta *plaxiarren* arteko adarjotze giroa erakusten zutenak: *Zirikadak* eta *Eztenkadak*. Iaz berriro eman ziren argitaratu, Eibarko Udalaren ekimenez.

Euskaltzaindi barruko lanari dagokionez, 1957an izendatu zuten urgazle, 1964ean euskaltzain oso eta 1967tik 1978ra akademiako idazkari izan zen Beraz, 1968an Arantzazun batasunari buruzko kongresua egin zenean, bera zen idazkari. Batzarrean Koldo Mitxelena euskara baturako proposatu zuen bidearen defendatzaile sutsu izan zen, eta jarrera horrek 'h' letraren inguruko eztabaida mingotsetan protagonismo handia izatera eraman zuen.

Euskaltzainburuorde ere hautatu zuten 1988an, baina kargua hurrengo urtean utzi zuen, Euskal Autonomi Erkidegoko Ararteko izendatu zutelako.

1994tik 1995era Europar Ombudsman Erakundeko buru izan zen. Urte horretan utzi zion Ararteko izateari ere. Behin erretiroa hartuta, gogotsu ekin zion Hondarribiko herriarekin lotutako ikerketari ekin zion. Hango elizaz lan mardula publikatu zuen, eta beste bat onomastikaz. Eta Jaizkibel aldean arkeologi aurkikuntza interesgarriak egin zituen. ■

PERFIL

Como mapa desplegable

FÉLIX MARAÑA

En la cultura vasca contemporánea, la figura de Juan San Martín se representa a la manera de un mapa desplegable, en cuyo interior se contiene un amplio repertorio de conocimientos, entendimiento y afecto al País Vasco y a la humanidad entera. En cada una de sus páginas, hallaremos muestras de cómo el poeta ahora desaparecido responde a las cuestiones más relevantes en las que esta cultura se ha manifestado. Así, encontraremos referencias sobre la lengua vasca, la arqueología, la literatura, el arte —con sus particulares salas sobre el románico, la escultura, clásica y contemporánea, el artesanado—, la espeleología, la ecología, el patrimonio industrial. Habrá una capítulo para la literatura popular, el bertsolarismo, y un capítulo para el humor y muchos más. Múltiples saberes, que explican la excelencia de este hombre, en el que siempre sobresalió la generosidad y la entrega.

El comportamiento intelectual del escritor eibarrés aparece así como referencia no menos ejemplar, pues toda esa conducta hubo de labrarla desde una excelente conciencia de servicio a su tiempo. Por demás, San Martín careció de elementos formativos o universitarios, así como de medios, que le facilitarían el conocimiento, lo que hace más meritoria su labor, por cuanto hubo de aprender por su cuenta, tarea en la que sólo se embarcan las personas de inteligencia y mirada amplia. Aún está por demostrar de dónde sacaba el tiempo para su formación y cómo ésta habría de ser tan exquisita. Cuando se puso a investigar lo hizo con sus propios medios: en el mundo, al menos en este, no se habían inventado aún las becas.

Heredó de sus mayores la cultura del respeto y el afecto por la lengua, las costumbres, patrimonio e historia del País, pero de él partirá la decisión de ampliar los horizontes. No teniendo universidad ni medios, se las ingenió para estudiar por su cuenta, adquiriendo pronto, no sólo conocimientos, sino claves de interpretación de la cultura y la historia del mundo, como si fuera el más cultivado hombre del Renacimiento.

Un hombre que se daba cuenta de las cosas, porque advertía las carencias, que su empeño procuraba corregir. Cuando se encontraba haciendo el servicio militar, el joven tornero comprendió



Retrato de Juan San Martín. (ÁLVARO SÁNCHEZ)

que no podía dirigirse por carta a sus padres en la lengua que les era propia. Decidió alfabetizarse. Su contribución al proceso de normalización de la lengua —fue, por otra parte, uno de los pioneros de las campañas de Alfabetización— explica la visión de aquel joven, que para entonces ya era un experto espeleólogo, reconocido internacionalmente. Ahí se formaba otro de los aspectos más relevantes de su personalidad y de su sentido progresivo de la historia: su amor a la Naturaleza. Ahí está su participación en los congresos de Euskaltzaindia, y en todos los asuntos que convenían a la situación del euskera en la modernidad.

Esa modernidad se manifiesta en la obra poética que escribió, de un corte existencialista, adelantado también al tiempo, como se advierte en el libro *Giro gori (Tiempo ardiente)*, en el que se recoge toda su poesía. San Martín, siempre dispuesto a empujar proyectos de sus contemporáneos, dedicó a las tareas comunes un tiempo generoso, que restaba a su propia obra. Pero tal conducta sólo puede explicarse por su condición de poeta, por haber sabido vivir poéticamente en todas y cada unas de las facetas de la cultura, en las que San Mar-

tín extendió su repertorio. Contribuyó como nadie a considerar en la cultura la conjugación del plural: nosotros. Tenía ese sentido colectivo que llevó a ver más allá de su obra, y sin detenerse en ésta, preparó el primer *Diccionario de Escritores Euskéricos* (1968). Pero el censo en otros muchos campos, y promovió instituciones, como Euskal Idazleen Elkarte o Euskal Itzul-tzaileen Elkarte, y amó la poesía y la lengua de Aresti, como la de Celaya y Otero, a los que tanto quiso también.

Resulta difícil sustraerse al dolor que causa escribir unas líneas sobre el amigo muerto, pero alienta saber que toda su conducta fue ejemplo para quienes tuvimos la suerte de encontrarle en el camino. Desconozco qué orden de mérito, qué reconocimiento debe otorgar una sociedad a ciudadano de conducta tan abnegada al interés social. Sus cenizas se aventarán en el monte Jaizkibel, para contribuir al ciclo de la naturaleza, que él tanto amó, y cuyos yacimientos prehistóricos halló, reconoció y comunicó a las instituciones científicas. Falta ahora que se despliegue el mapa y el País Vasco conozca a uno de sus intelectuales más auténticos. Nunca es tarde. ■

LIBROS Y ESTUDIOS

CATELLANO Y FRANCÉS

- *Estudio etnográfico del Valle de Urraul Alto* (Navarra) (En colaboración con Luis-Pedro Peña Santiago) San Sebastián, 1966.
- *Escritores euskéricos* (Bilbao, 1968). Elgueta con Anguiozar y Ubera (San Sebastián, 1975)
- *Eibar* (Capítulo monográfico en el Diccionario Enciclopédico del País Vasco, de la Editorial Auñamendi, Tomo X, San Sebastián, 1979).
- *Existe-t-il un art basque?* (En la enciclopedia *Etre basque*), Toulouse, 1983.
- *¿Existe un arte vasco?*, en *Ser vasco* (Bilbao, 1986).
- *Las artes del pueblo vasco*, en *Euskalerria* (Barcelona, 1987).
- *Los Zuloaga, dinastía de artistas vascos* (Capítulo *El pintor Ignacio Zuloaga*) (San Sebastián, 1988).
- *Santa María de la Asunción de Hondarribia. Su Historia, arte y arquitectura*. En prensa.

EN EUSKARA

- *Juan Antonio Moguel, bere bizitza ta lanak*. Zarautz, 1959
- *Zirikadak*. Zarautz, 1960
- *Eztenkadak*. Zarautz, 1965
- *Uhin berri* (*Antología de poesía joven, 1964-1969*). San Sebastián, 1969.
- *Euskeraren inguruan* (En la obra *enciclopédica Lur eta Gizon*). Oñate, 1974.
- *Hegatsez* (*Antología de prosistas contemporáneos, en colaboración con Serafín Basauri*). Zarautz, 1971.
- *Euskal Artea* (En la obra *enciclopédica Lur eta Gizon*). Oñate, 1974.
- *Gogoz*. San Sebastián, 1978.
- *Literaturaren inguruan*. San Sebastián, 1980.
- *Euskera agerkaria, Aurkibidea-Index-Índice, por autores y materias de los años 1920-1979*. Bilbao, 1980.
- *Bidez*, San Sebastián, 1981.
- *Erromanikoa Euskal Herrian*, San Sebastián, 1983.
- *Landuz*, San Sebastián, 1983.
- *Jose Manterola*, San Sebastián, 1985.
- *Antzinako Eibar*, Eibar, 1993.
- *Euskararen ostarreak*, Erein, San Sebastián, 1998.
- *Giza eskubideen inguruan*, Elkar, 2000
- *Santa María de la Asunción de Hondarribia: historia, arquitectura y arte*, Diputación de Gipuzkoa, 1998
- *Toponástica de Eibar y Elgeta*, Euskaltzaindia, 2000.

BILINGÜE

- *Giro gori- Tiempo ardiente* (1954-1977),UPV/EHU (1998)
- *Dichos y hechos - Esanak eta eginak*. Vitoria-Gasteiz, 1994.

INSTITUCIÓN ARARTEKO

► «Es de justicia que la sociedad conozca la gran labor del primer Ararteko»

PELLO SALABURU

Ex rector de la UPV

► «Aportó grandes dosis de liberalismo al mundo del euskera»

XABIER GEREÑO

Escritor

► «Era muy afable y abierto, y muy afectuoso con todo tipo de personas»

ANDRÉS URRUTIA

Presidente de Euskaltzaindia

► «Fue autor, pero también impulsor y gestor de la cultura en tiempos difíciles»

TERE IRASTORTZA

Euskal Idazleen Elkarte

► «Un ejemplo de gran autodidacta, con curiosidad por todos los temas»